
EUSKAL BIDARITZA EDO POSTA

Euskaldunok, gure buruaren jabetza lortzen ari gera poliki poliki. Elburu nagusi batzuek lortu ditugu: gure legegintza, jaurlaritza, agintarien batzarra, zergak jasotzea, iru euskal probintziak bat egitea, euskararen aurkezpena eta abar. Orain urrats geiago egin bear: elburu garrantzi aundikoa bidaritza edo posta lortu. Euskal bidaritza lortu ezkeru bi elburu garrantzi aundikoak gure eskuetan: euskal kulturaren zabalkundea eta lantoki geiago euskaldunentzat. Oso bestelakoak dire gauzak Madrid tik ikusita edo Euskalerritik.

Gure kultura zabaltzeko, bidaritza edo posta, ori bide egokial. Madrid'ko eskuetan "selloak" edo "idurixtoak" Madrid'ko kultura azalduko lukete. Malla orretan garrantzi aundia eukiko luke orrelako, izen aundiko zerrenda batek: Cervantes, Lope de Vega ta Azorin, edo Antonio Machado edo idazle auen antzekoak. Izen aundiak erdal kulturarentzat eta maiz selluetan, arrazoiarekin, selluetan azalduko dituztenak benetan enda baten emaitzarik onena. Nola ez?.

Guk euskaldunok, ba ditugu gure kulturaren langille egoki ta berexiak. Bidezkoa deritzait izen batzuek azaltea: Azkue, Sabino Arana, Orixe, Lizardi, Santi Onaindia, Jose Migel Barandiaran, Manuel Lekuona, Jon Oñatibia, Elbira Zipitria eta abar.

Auek euskaldunak dire ta gure nortasuna azalduko lukete. Orregatik eta ortarako bearko genuke gure bidaritza edo posta.

Ikaragarriko argitasuna emango lioke gure kulturari eta selloen bitartez euskal kultura obeto ezagutua izango litzake ludi zabalean.

Batek baño geiagok esango lukete, nazioen arteko askatasuna ta indarra agertzen dutela selloak. Bide orre-

tatik gure askatasunerako lortu bearko genituzke gure selluak!.

Euskalerrientzat nai dugun ori bera, eredu eder ta garbi batzuek agertzen digute. Ortzen daukagu, adibidez, Feroe delako lurralde edo ugarte bilduma; guk bezala daukate "buru-jabetza".

Ogeitabi ugarteek sortzen dute lurralde au: 34.000 biztanle ditu (1955) eta 1.400 km². Lurgintza ta artzantzatik bizi dire. Ugarte bilduma ori Dinamarka'ri egokitzen zaio. Len aipatu dugun bezala, Feroe delako lurraldeak ba du buru-jabetza (1948), jaurlaritza, batzarrea ta nortasuna. Izkuntza ta nortasunaren aldetik gurea aundiagoa ta zarragoa da.

Ezagutu nai nituen Feroe delakoaren lurraldeak daukan selloak eta udara onetan, Koopenage'n erosi ditut. Salgai, bakarrik toki batean zeuzkaten. Azkeneko bilduma, joan dan urtekoak esango ditugun gaiak argitaratu dituzte: itxas ondoko bazterra, lau landare ezberdiñak bertan arkitzen direnak, bi emakume ekintza aundikoak, bi txori bertan ezagunak, iru lauki margolari ospetsuarenak a bertako semea, FEROE LURRALDEAREN BI MAPA ZAR, ELIZ BERRI BATEN BI MARGO, atadia ta eliz barrera ikusten ditugu.

Sello bakotxak izen aundi bat darama esaten duna "FEROE" (FOROJAR) baita ere zenbat den selloaren balioa.

Sello oiek lurralde txiki baten edertasuna ta aberastasunak agertzen dituzte. Guk euskaldunok, guretzat, gauza berdiña naiko genuke.

LATXAGA

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (2.500 pezeta) kontu onetan:

**EUSKERAZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5**

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan BBK'ra eta ordaindu 2.500 pezeta. Ez dozu ezer be idatzi bear

Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!